

Neutroiak bereizteko makina Bizkaian koka daiteke

Bizkaiko hautagaitza Suezia eta Hungariarekin lehiatuko da, neutroien iturri europarraren instalazioa ezartzeko; Europako ikerkuntzarako azpiegitura handienetarikoa izango litzateke. Azken deliberoa, zientifikoa baino politikoa, abenduan hartuko da Versallesen Europako.

DANIEL UDALAITZ

ZAMUDIO ETA LEZAMA ARTEAN, parke teknologikoaren inguruan, koka liteke "ESS-Bilbao" ikerkuntzarako Europako azpiegitura handia, espalazio bidezko Neutroien Iturri europarra, hain zuzen. Proiektua gauzatuko balitz, eragin nabarmena izango luke ekonomian, Euskal Herrian industria sektore berria irekitzea esan nahiko bailuke. Teknologia berri honen azpiegitura instalazioak 1.300 milioi euro inguruko kostua izango luke, eta zuzenean ehunka eta zeharka beste hamarna mila lanpostu sortuko litzateke; horretaz gain urtero 700 milioi euroko zerga publikoa sortuko luke.

Instalazio hau erronka ikaragarria da gaur egun bi arrazoientatik: bate-tik, AEB eta Japonian daudenez gain, Europan era honetako beste bi instalazio baizik ez daudelako, Frantziako Grenoble eta Ingalaterrako Oxfordekoak, hemendik gutxira zaharkituak geldituko direnak. Bestetik, bi hautagai gehiago ere badirelako (Suezia eta Hungaria), Euskal Herriarekin batean gisa honetako puntako azpiegitura teknologikoa nahi dutenak. Hautatutako kandidatura zein den heldu den abenduan jakinen dugu, hilaren 6 eta 7an Frantziako Versallesen izango den Europako Ikerkuntzarako Azpiegitura handien batzarreran.

Azken erabakiak hautagai bakoi-tzak eskaintzen dituen baldintza eta aukerak zein diren kontuan hartu beharko litzuzkeen arren, egia esan,



Suitzako azeleratzaile honek protoiak jaurtitzen ditu jomuga baten aurka atomoak espaltzeko. Hortik neutroiak lortzen dira.

erabakia politikatik zientziatik baino hurbilago egongo da. Izan ere, erabakia Frantzia eta Ingalaterrako Gobernuen eskuetan egonik, Euskal Herri-

PSEk instalazioaren hautagaitza ez babestea mehatxatu du Ibarretxek bere "apustu soberanista"rekin jarraituz gero

ko hautagaitzak aukera izango luke baldin eta Espainiako Gobernuak azpiegitura Bizkaian kokatzea konbentzimendu osoz eta tinko negoziatuko balu. Jakina da Lakuako gobernuak ez dituela behar diren konpetentziak Europako herriein kanpo harremanak sakontzeko. Hortaz, Espainiako Gobernuaren eta Lakuaren arteko harreman politikoen osasunaren araberakoa izanen da Espainiako Gobernuak erakutsiko duen interesa. Gaur egun ez dago zalantzarik. Gobernuak aurrera egingo du proiektuarekin, itxura hori du behintzat, PSOEek eta EAJk hitzarmena sinatu baitute Espainiako Estatuak aurrekontu orokorretarako.

tuko balu. Jakina da Lakuako gobernuak ez dituela behar diren konpetentziak Europako herriein kanpo harremanak sakontzeko. Hortaz, Espainiako Gobernuaren eta Lakuaren arteko harreman politikoen osasunaren araberakoa izanen da Espainiako Gobernuak erakutsiko duen interesa. Gaur egun ez dago zalantzarik. Gobernuak aurrera egingo du proiektuarekin, itxura hori du behintzat, PSOEek eta EAJk hitzarmena sinatu baitute Espainiako Estatuak aurrekontu orokorretarako.

Zer da neutroien iturria?

Lehenik eta behin espalazio bidezko neutroien iturria zer den argitu

Industria sektorea berritzen

Neutroien iturri europarraren instalazioa kokatzeko euskal hautagaitza aterako balitz, eragin ekonomikoa garrantzitsua litzateke. Halakoa, ezen azpiegitura handiei loturiko sektore industrial berria sortuko bailitzateke Euskal Herrian. Horrek besteak beste, inbertsioetan, BPGan (Barne Produktu Gordina), zuzeneko eta zeharkako lanpostuen sorreran eta zerga publikoetan eragingo luke.

Gisa horretara, hautagaitzaren aldekoen arabera, BPGean 3.000 milioi inguruko aportazioa eginen luke, azpiegiturarako egin beharreko inbertsioaren bikoitza. Zuzenean 400-600 lanpostu lortuko lituzke eta 4.000 zientzialarien bisita ekarriko. Zeharka ere beste hainbat mila lanpostu sortuko lirarteke teknologia eta enpresa aktibitateari lotuak. Instalazio berri honetarako inbertsioa 1.300 milioi eurokoa litzateke.

Euskal hautagaitza aurrera aterako balitz instalazioaren kostuaren %70 Espainiako Estatuak finantzatuko luke. Baina badago Madril eta Lakuaren arteko aurre hitzarmen bat, bakoitzak %50a har dezan. Gainontzekoa nahi luke ten herrien artean finantzatuko litzateke.

beharko litzateke: azeleratzaile baten bitartez protoiak jaurtitzean datza ikerketa bide hau. Bizkaiko proiektuan, 800 metrorainoko luzera izan dezakeen azeleratzailearen bidez protoiak jomuga baten aurka botatzen dira jomugaren atomoak espaltzeko, hortik neutroiak lortuz.

Helburuaren inguruan mediadore zenbait aurkitzen dira neutroietan ageri diren aldaketak antzematen dituztenak; gisa honetara, materiaren oinarri-oinarrian zer gertatzen den jakiteko. Nukleoa merkurio likidoz osatua izaten da, masa handia duen materiala izanik, ahalik eta neutroi gehien lortzeko helburuarekin.

Eta zein da neutroi hauek duten aplikazio praktikoak? Neutroien estudioak material berriekin edota horien aplikazioarekin du lotura zuzena. Eredu garrantzitsu bezain ezberdinetara zabaltzen da; hala nola, arkeologia, biologia, geologia, bioteknologia, nanoteknologia, elektro-magnetika, aeronautika, automozioa, astrofisika edota energiara besteak beste. Eta eremu horiek guztiak dira hain zuten ere, Euskal Herriak azken urteotan sakonki jorratu dituenak.

Egindako urratsak

Euskal Herriak apustu egin duen proiektu garrantzitsu horrek urrats sendoak eman ditu dagoeneko 2005ean Espainiako Gobernuaren eta Lakuaren artean euskal hautagaitzaren aldeko akordioa hitzartu zenetik.

Apirilaren 25ean proiektuari buruzko txostena aurkeztu zen eta maiatzean Frantzia, Belgika, Italia,

Danimarka eta Portugalgo delegazioek Bizkaia bisitatu zuten bere egoeraren berri ukateko.

Horretaz gain, Ikerkuntzarako Azpiegituretarako Foro Estrategiko Europarraren aitzinean hainbat hautagaitza ebaluatzeko txostena aurkeztu behar duen adituen komiteak Bizkaia bisitatu zuen iragan uztailan.

Aipatu txostenaren aurkezpena abuztuaren 24an zegoen iragarria eta nahiz azken erabakia hartzeko ez dagoen data zehatzik, jakina da aurkezpen egunetik landa deliberoa bizkortu litekeela.

PSEren xantxia

Irailan, ikasturte politikoa hastearrekin batera, PSEk eta Espainiako Gobernu ministro batek deklarazioak egin dituzte proiektu hori EAEtik lekutzeaz mehatxatuz. Hala nola, Rodolfo Ares PSEko eleduak aditzera eman zuenez, "ez da komenigarria EAJk gobernuari instalakuntza zientifiko honen aldeko esfortzu diplomatikoa eskatzea Madrilan, eta bitartean EAJkoa den lehendakariak Espainiaren aurkako gurutzada bultzatzea Europan".

Bestalde, Espainiako Gobernu ministro Cristina Garmendiak adierazi zuen Eusko Jaurlaritzak Europako Giza Eskubideen tribunaletan kontsultaren inpugnazioa salatzeak, ez duela laguntzen Europan egin behar den euskal hautagaitzaren aldeko defentsan. Horretarako, bi administrazioen arteko harreman sendoa ezinbestekoa dela gaineratu zuen. ■

